

ESKOLAKO JUDOAREN ARAU ESPEZIFIKOAK 2020-2021 IKASTURTERAKO

1. Kirol-diziplinaren lehiaketa-jardueren izena.

JUDO-AIKIDO-JIU JITSU-KENDO-WU SHU-DEFENTSA PERTSONALA

2. Kirol-diziplinaren lehiaketa-jardueren joko-erregelamenduak.

Pisaketa zozketa bidez egingo da, lehiakide kopuruaren arabera.

Kategoria bakoitza pisuka banatuko da, lehiaketa-eremuan jende gutxiago sar dadin.

Ez da lurreko lanik egingo benjamin eta alebin kategorietan.

Trofeoak ematean, derrigorrezkoa izango da kirolariak eta sariak banatzen dituen pertsonak maskara erabiltzea.

3. Kirol-federazioek antolatutako lehiaketa edo jardueretarako jarduera-arauak.

Kirolarien zerrenda bat izatea, ordutegia eta bertaratutakoen taldeak eta azpitaldeak egunero kontrolatzeko. Zerrenda hori klubaren zaintzapean geratuko da, 2020-2021 denboraldia amaitu eta hilabetera arte mantendu beharko da, eta kirol- edo osasun-agintariek eskatu ahal izango dute.

4. Erakunde parte-hartzaileen barruan egin beharreko entrenamendu eta saioetarako jarduera-arauak.

Oinak xaboi-urarekin edo paper-zapi desinfektatzailearekin garbitzea, entrenamendu-gelara oinutsik sartu aurretik ("tatamiak").

Sarrera eta irteera mailakatua, txandaka edo hainbat sarbidetatik (halakorik balego).

Lurreko judoko lana saihestea, lurreko lan tekniko eta taktikoa banakako panpina propioekin egingo da.

Irakaslea pantaila babeslea edo maskara jantzita.

Sarrera eta irteera mailakatua, txandaka edo hainbat sarbidetatik (halakorik balego).

Saio berean elkarren segidako bi entrenamendu edo gehiago badaude talde desberdinekin: aireztapena 5 minutuz edo/eta instalazioa garbitzea lainoztagailu desinfektatzailearekin (zorua, hormak, altzariak eta material finko eta mugikorrak).